

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

1824

EBAZPENA, 2021eko martxoaren 11koa, Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren sailburuordearena, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2020ko urriaren 7ko Aginduan ezarritako laguntzen deialdia ebatzi eta argitara ematen duena. Agindu horren bidez ezartzen dira 2020ko ekitaldirako dirulaguntzak arautzeko oinarriak eta horietarako deialdia egiten da, ZTBP Euskadi 2020ren (Bai+D+i Programa) «Hiri Habitat» aukera-nitxoko helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko.

2020ko urriaren 15eko EHAA (203. zk.), Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2020ko urriaren 7ko Agindua argitaratu zen, zeinaren bidez ezartzen baitira 2020ko ekitaldirako dirulaguntzak arautzeko oinarriak eta horietarako deialdia egiten baita, ZTBP Euskadi 2020ren (BAI+D+i programa) «Hiri Habitat» aukera-nitxoko helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko.

Eskabideak aurkezteko epea 2020ko azaroaren 16an amaitu zen, aipatutako aginduaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera. Horrela izanik, hamasei eskabide sartu dira, baina horietako batek, Pezestudio S.C.k eginikoak, atzera egin du, eta, beraz, gainerako 15 eskaerak aztertu eta egiaztatuko dira.

Dirulaguntza hauek arautzen dituen 2020ko urriaren 7ko Aginduaren 14 artikuluan xedatutakoarekin bat, azaroaren 25ean horretarako balorazio-epaimahaiak eratu zen, hartutako eskabideak aztertu eta egiaztatzeko xedez, kontuan hartuta 12. artikuluan xedatutakoa, hau da, esleipenerako irizpideak eta gehieneko puntuazioa.

2020ko urriaren 7ko Aginduaren 10. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, guztira 400.000,00 euro bideratuko dira dirulaguntzak emateko. Bestalde, 10. artikuluko berberak zehazten du diruz lagunduko dela diruz lagungarriak diren kostuen % 80, proiektu bakoitza idazteko eta gauzatzeko 100.000 euroko gehieneko muga jarrita eta 30.000 eurokoa proiektuak idazteko eskusiboki, aurrekontuko kreditua amaitu arte, eta ezin izango direla diruz lagundu ez BEZa ez bestelako zergak, salbu eta egiaztatzen bada kostua eragiten diola onuradunari.

Epaimahaiak, proposamenak aztertu eta egiaztatu ostean, 15. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, 2021eko urtarrilaren 20an eta 21ean, sailburuordeari aurkeztu zion esleipenerako proposamena, non adierazten baitira aurkeztutako eskabideen zerrenda, diruz laguntzea proposatzen den eskabideen zerrenda eta ukatzea proposatzen den eskabideen zerrenda, ukatzeko arrazoiak barne.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2020ko urriaren 7ko Aginduaren 15. artikuluan xedatutakoarekin bat (agindu horren bidez ezartzen dira 2020ko ekitaldirako dirulaguntzak arautzeko oinarriak eta horietarako deialdia egiten da, ZTBP Euskadi 2020ren (BAI+D+i programa) «Hiri Habitat» aukera-nitxoko helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko), eta horretarako eraturako balorazio-epaimahaiak proposatutakoa ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– «Hiri Habitat» aukera-nitxoko helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko dirulaguntzak ematea ebazpen honetan atxikita dagoen I. eranskinean

zerrendatuta agertzen diren pertsona eta entitate onuradunei, proiektua egiteko eta dokumentuan aipatzen den zenbatekoan.

Bigarrena.– «Hiri Habitat» aukera-nitxoko helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko dirulaguntzak ukatzea II. eranskinean adierazitako pertsona eta entitateei, horretarako arrazoiak adierazita.

Hirugarrena.– Laguntzak ordaintzeko modua eta epea. Dirulaguntza honelaxe ordainduko da:

a) Emandako zenbatekoaren % 25, ordainketa aurreratu gisako libramendu baten bitartez, 2020ko urriaren 7ko Aginduaren 18. artikuluan a) letran zehaztutako epea igaro ondoren, betiere onuradunak ez badio uko egin dirulaguntzari.

b) Laguntzaren zenbatekoaren % 18,75, finantzatutako lanen % 43,75en justifikazio tekniko eta ekonomikoa aurkeztu eta gero; agiri horiek 2021eko maiatzaren 30a baino lehen aurkeztu behar dituzte pertsona eta erakunde onuradunek, formatu elektronikoa.

c) Laguntzaren zenbatekoaren % 18,75, finantzatutako lanen % 62,50en justifikazio tekniko eta ekonomikoa aurkeztu eta gero; agiri horiek 2021eko azaroaren 30a baino lehen aurkeztu behar dituzte pertsona eta erakunde onuradunek, formatu elektronikoa.

d) Laguntzaren zenbatekoaren % 18,75, finantzatutako lanen % 81,25en justifikazio tekniko eta ekonomikoa aurkeztu eta gero; agiri horiek 2022ko maiatzaren 30a baino lehen aurkeztu behar dituzte pertsona eta erakunde onuradunek, formatu elektronikoa.

e) Laguntzaren zenbatekoaren gainerako % 18,75a, Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzak behin betiko proiektua eta dagokion memoria ekonomikoa xehatua onartu ondoren, 2022ko azaroaren 30a baino lehen.

Dirulaguntzaren justifikazioa eta aurkeztu beharreko dokumentazioa 2020ko urriaren 7ko Aginduaren 17. artikuluan ezartzen dira.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eskatzaile guztiei jakinarazteko, 2020ko urriaren 7ko Aginduaren 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 11.

Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren sailburuordea,
MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL.

2021eko martxoaren 26a, ostirala

I. ERANSKINA

EMANDAKO ESKABIDEAK

	Diruz lagundutako jarduera. Proiektuaren titulua.	Pertsona eta entitate onuradunak.	Pertsona eta erakunde laguntzaile onuradunak.	Diruz lagundutako zenbatekoa (€).
1	Txa.Barr.I Modulu aurrefabrikatu jasangarriko pilotua Sestaon.	Eraikune Asoc. Cluster de la Construcción de Euskadi	Iglu Energy Savings S.L., Tapicería Irastorza S.L.	100.000
2	Zuretik eratorritakoak eta klimatikoki neutroak diren industrializatutako eraikuntza- sistemak aztertzea eta lortzea, eraikuntza-prozesuetan erabiltzeko.	AH & Asociados, Arquitectos, Grupo Norte S.L.U.	RB3 Innovación Integrada S.L., Baskegur	100.000
3	H a b i t [a r]	Behark Arkitektura S.L.P.		100.000
4	Eraikinetako birgaitzeetan komunikazio-guneetarako eskailera-kaxa estandarizatzea.	Corsam Innova S.L.		54.966,16
5	Kaleth Mugikortasun iraunkor azkarra «Kaleth».	Kailash		30.000
Guztira				384.966,16

2021eko martxoaren 26a, ostirala

II. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK

	Pertsona eta entitate eskatzaileak	Proiektuaren titulua	Ukatzeko arrazoa
1	Ambiente et Odora SL	Hiriko espazio publikoetan usaina, aire-partikulak eta materia birala arazteko bi ekipo autoikuskatu instalatzea	Ez da iritsi 70eko puntuaziora. 2020ko urriaren 7ko Aginduaren 10.3. artikulua.
2	Harreman S.Coop Lab	Etxearekin bai	Ez da iritsi 70eko puntuaziora. 2020ko urriaren 7ko Aginduaren 10.3. artikulua.
3	Home Care Lab, S. Coop	Errekalde, auzo zaintzailea	Ez da iritsi 70eko puntuaziora. 2020ko urriaren 7ko Aginduaren 10.3. artikulua.
4	Lurstudio Koop Elk Txikia	B2 Berritu berdetuz	Ez da iritsi 70eko puntuaziora. 2020ko urriaren 7ko Aginduaren 10.3. artikulua.
5	Miriam Varela	Otxar 3 – Hiri-laborategia	Ez da iritsi 70eko puntuaziora. 2020ko urriaren 7ko Aginduaren 10.3. artikulua.
6	Hiritik At Koop Elk Txikia	«Larreaundi Biziberritzen» unen	Ez da iritsi 70eko puntuaziora. 2020ko urriaren 7ko Aginduaren 10.3. artikulua.
7	IN2 Destination research and consultancy in tourism SL	LivElan – ElantxobeSmart, Livable, Sustainable	Ez da iritsi 70eko puntuaziora. 2020ko urriaren 7ko Aginduaren 10.3. artikulua.
8	Fundación Instituto Gerontológico Matia-Ingema	Hiri Argi-LAB: Dementia duten pertsonentzako hiri-argiztapeneko laborategia. Lugaritz Espazioa	Ez da iritsi 70eko puntuaziora. 2020ko urriaren 7ko Aginduaren 10.3. artikulua.
9	Hirikiten Hiriaren ikerketarako elkarte	Eskolab Proiektua	Ez da iritsi 70eko puntuaziora. 2020ko urriaren 7ko Aginduaren 10.3. artikulua.
10	Pezestudio SC	Ez du aurkeztu	Atzera egitea eskatu du.
11	Semaforo Ruido SL	Monitorizazio akustiko adimenduneko hiri-sarea (IA) Econoisense	Ez da iritsi 70eko puntuaziora. 2020ko urriaren 7ko Aginduaren 10.3. artikulua.